

XVII. MENDEKO IDAZLEEN PRESTAKUNTZAREN INGURUAN. AXULARREN KASUA (II)

- 1.- OINARRIZKO IKASKETEZ
- 2.- ERRETORIKA KLASIKOAN BARNERATZEN
- 3.- ARTEETAN BATXILERGOA

4.- PRESTAKUNTZA EKLESIASTIKOA (1591-1595)

Axularren ibilbide biografiko-akademikoaren iluntasunak dira medio, gehiegi argitu gabeko suposizio bihurtu da halaber Axularren presentziarena Salamancan hainbat urtetan.

Zuzen dakiguna da Axular 1594ean Teologiako 4. kurtsoan matrikulatu zena (AUSA 308, 106 i.). 1592ko azaroaren 26an matrikulatzen denean (AUSA 307, 96 i.), ordea, ez da azaltzen zein kurtsoan matrikulatzen den, gauza harrigarria, bestalde, gogoan hartzen bada ikasle guztien lerroetan kurtsoa konsignatzen zela¹. Bakar-bakarrik dakigu egun berean lehen kurtsoa

¹ Axularren kasuan, ulertzen ez den "m" antzeko zirriborro luze-zabal bat baino ez da ikusten kurtsoa eta "b(achiller) a(rtista)" laburdurak agertu ohi ziren lekuan. "M(onje)" hitzaren laburdura agian? Matrikula apuntatzen zuenarentzat bazukeen esanahirik, inondik ere. Nonbait, geroago adieraziko den bezala, Salamancako unibertsitateak onetsitako ikastetxe batetik zetorrelako.